



Hacia una  
soberanía plena

IRITZIA >> 8



Ipar Euskal Herriko  
esperientzia bat

IRITZIA >> 10



# zkerra Berri

ezkerra aberri  
aldizkaria

31 2015eko ABENDUA. Ezkertiar eta Abertzaleen aldizkaria



**Herritarren  
parte  
hartzea eta  
ahalduntzea**

## Herritarren parte hartzea eta ahalduntzea

El pasado noviembre EHBildu presentó en el Parlamento Vasco la propuesta de Ley de Empoderamiento de la Ciudadanía de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Esta propuesta de ley tiene como objetivo ofrecer a la ciudadanía una serie de herramientas para participar directamente en vida políticas y en las decisiones de las administraciones públicas. No es, tal como algunos medios de comunicación han pretendido transmitir, una mera ley de consultas que tenga por objetivo el ejercicio del derecho a decidir. Este derecho se podría ejercer en función de la ley, pero los instrumentos que ofrece van mas allá y pretenden profundizar en la democracia y facilitar la participación ciudadana en la toma de decisiones públicas.

Este hecho no has parecido lo suficientemente importante como para dedicar este número de Ezkerraberi a los mecanismos de participación ciudadana.

Asier Blas, profesor de la UPV y experto en participación ciudadana nos da su visión sobre ellos en una larga entrevista. Señala que los mecanismos de participación ciudadanas son múltiples, que han de adaptarse a la situación de la sociedad donde se aplican pero que en todo caso tienen que tener obligatoriamente cuatro fases: información, planteamiento de propuestas, deliberación y toma de decisiones. Por otra parte, no se muestra muy favorable a los procesos asamblearios.

Por otra parte, Inaki Irazabalbeitia nos hace un resumen de las características principales de la propuesta de ley. El aspecto mas novedoso de la misma es, quizás, la posibilidad de realizar consultas facultativas es decir dotar a la ciudadanía del derecho a promover consultas populares que tengan como objeto recabar la opinión de la misma mediante votación de leyes, normas u ordenanzas recientemente aprobadas por el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales o los ayuntamientos respectivamente.

Igor López de Muniain nos da su visión sobre los procesos de participación como una herramienta hacia la soberanía plena como pueblo y como ciudadanía.

Iker Elizalde, concejal de Hendaya, nos presenta una experiencia de participación que se está actualmente desarrollando en dicha ciudad.

Rebeka Ubera detalla en la contraportada las metas y objetivos de la Ley de Empoderamiento.

Además, junto con este número de Ezkerraberi distribuimos el boletín de noticias del Maurits Coppieters Center, fundación europea de la cual es miembro nuestra fundación. Esperamos lo encontréis interesante.



## Asier Blasekin solasean “Herritarrek parte hartzeko mekanismoetan Espainia gara”

Inaki Irazabalbeitia

**Asier Blas irakaslea da EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean. Herritarren parte hartze prozesuak bere interes akademikoen ardatzetako bat dira. Ezkerraberi bereganara jo du auzi horri buruz argia bilatzeko asmotan.**

**Ezkerraberi-** Zer esan nahi da herritarren parte hartzea aipatzen denean?

**Asier Blas-** Herritarren parte hartzea aipatzen da batez ere demokrazia liberala krisian dagoelako; legitimitate-krisia du. Krisi hori gainditzeko partaidetza-mekanismoetan hausnarketa sakona bideratu da mundu akademikoan zein politikoan. Esango nuke parte hartzearen auzia goitik datorrela ez behetik.

Legitimitate-krisia sortzen da ordezkari politikoak hartzen ari diren erabakiak lotura galtzen ari direlako herritarren borondateetik. Lotura hori gero eta hauskorragoa da eta gero eta intentsitate txikiagokoa. Zergatik gertatzen ari da hori? Beti dago politikariei kulpa botatzea. Ez da politikarien erantzukizuna bakarrik. Gure gizartea oso konplexua da. Duela ehun eta piku urte ordezkartzan oinarritutako demokrazia jaio zenean oso erraza zen interesak agregatzea eta detektatzea. Adibidez, langile-klaseak zein interes dauzka: osasun publikoa, boto-eskubidea, hezkuntza publikoa, ... Horrelako interesak integratzea oso erraza zuten alderdi sozialdemokratek, sozialistek edo komunistek; baita kristau-demokrata batzuk ere.

Nolako zen langile baten bizitza? Langile-auzo batean jaiotzen zen, auzoko eskolara joaten zen, ondoko lanbide-hezkuntzako eskolara edo unibertsitate batera joango zen, etxe ondoko fabrikan egingo zuen lana edo etxe ondoko eskolan, osasun-zentroan edo administrazio publikoan eta inguruko pertsona batekin ezkonduko zen. Horrelako zen bizitza. Egun pertsona bat toki batean jaiotzen da, baina ez daki non biziko den non lan egingo duen; jendea toki batetik bestera mugitzen da, kultura eta hizkuntza desberdinak ezagutuko ditu. Lan-baldintzak atomizatu dira. Horrek zer eragiten du? Gero eta interes anitzagoak eta desberdinagoak agertzeak krisi politikoa ekartzen du, gero eta zailagoa delako detektatzea jendeak zer politika nahi dituen. Horrek atsekabea sortzen du.

**Ezkerraberi-** Esan al daiteke herritarren parte hartzea eta demokrazia parte hartzailea esaten dugunean gauza berari buruz ari garela?

**Asier Blas-** Herritarren parte hartzea beti dago. Demokrazia parte hartzailea esaten dugunean, herritarren partaidetza horri bide instituzional bat ematea da. Alde batetik biak lotuta



Ezkerra Berri Fundazioa

Ezkerra Berri Fundazioak gizartearen eztabaida zabaltzeko egiten duen ekarpena.

### Erredakzio taldea:

Patxi Zabaleta  
Rebeka Ubera  
Dani Maeztu  
Aser Lertxundi  
A. Iturriagaetxebarria  
I. Irazabalbeitia

### Diseinua:

Aser Lertxundi

### Maketazioa:

Zigor Agirrezabala

### Inprimategia:

Iratxe grafika



**Asier Blasekin solasean****“Herritarrek parte hartzeko mekanismoetan Espainia gara”**

daude, baina ez dira gauza bera. Biak uztartu beharko lirateke. Ohituta gaude herritarren eta erakundeen artean nolabaiteko distantzia ikusten. Erakundeek herritarren borondateak era egokian lantzen bazituzten ez zegoen gatazkarik, baina diferentziarik bazegoen hori konfrontazioaren bidez eramaten zen aurrera: protesta eta mobilizazioen bidez. Alabaina, protesta eta mobilizazio horiek bide instituzionalagotik eramatea ona da biezatzat. Zer esan nahi dut? Protesta eta mobilizazioa ongi dago, baina uneren batean negoziatziora iritsi behar da. Demokrazia parte hartzailea negoziatziorako esparruak bilatu nahi ditu.

**Ezkerraberi- Herritarrek bizitza politikoan parte hartzeko mekanismo asko daude. Zure iritziz zeintzuk izan daitezke egokienak herritarren eta agintari politikoaren artean egon daitezkeen interes-desberdintasuna egoki kudeatzeko gardentasunaren eta eraginkortasunaren ikuspegitik?**

**Asier Blas-** Tokian tokiko egoerara moldatu behar da. Mekanismo-sorta zabala eskura dago eta egoeraren ezaugarrien arabera aukeratu behar da zein.

Adibidez, toki batzuetan funtziona ditzakete aurrekontu parte hartzaileak eta beste batzuetan ez. Funtzionatu izan dute jendeak behar handiak dituen lekuetan. Jendeak ilusioa du eta konpromisoa hartzen du prozesu luzeetan parte hartzeko. Aitzitik, ongizate-maila bat duzun toki batean, akaso, ez zaude prest horrelako batean konstantziaz parte hartzeko eta nahiago duzu une konkretu batzuetan bakarrik parte hartu.

Partaidetzak gutxienez lau momentu izan behar ditu. Momentu horiek arau daitezke modu desberdinetan eta tokian tokiko ezaugarrietara moldatuz. Hauek dira:

**Informazioa.** Informatu behar du erakundeak zertara dagoen prest, zein den bere konpromisoa.

**Proposamenak egitea.** Erakundeek zein herritarrek egin ditzakete.

**Deliberazioa.** Mahaiaren gainean menu gutzia dugunean aukera desberdinez eztabaidatzea

**Erabakitzea.**

Prozesuan lau elementu horiek baldin badaude, gutxienekoa izango da nola deituko diogun, foroa, kontseilua edo dena delakoa edo nola arautuko ditugun aurrekontu parte hartzaileak badira. Lau momentu horiek zer segurtatuko dugu? Informa-

zioarekin gardentasuna segurtatzen dugu. Prozesu pedagogiko bat ere bada bi aldeentzat: herritarrek ez dituztelako askotan administrazioaren mugak ezagutzen. Aukera-berdintasuna hurbiltzen da, nahiz eta erabatekoa ez den posible, baina menua egiteko momentuan partaide guztiei eskaintzen badiegu proposamenak egiteko aukera eta gero horri buruz deliberatzeko aukera-berdintasunean aurrera egingo dugu.

**Ezkerraberi- Gurean kontsulta da herritarren parte hartzeko mekanismorik popularrena. Kontsultak al dira tresnarik egokiena herritarren iritzia jasotzeko eta erabakietan parte hartzeko aukera emateko?**

**Asier Blas-** Zientzia politikoetan enpirikoki demostratuta dago kontsultak erabiltzen dituztela batez ere eskumako alderdiek, bereziki populistek. Zuzeneko demokrazia kontsultekin lotzen denean oso ongi funtzionatzen du gutxiengoaren kontra egiteko: gutxiengo etniko, linguistiko, sozial,... Gogora dezagun orain ez gutxi Kroazian ezkontza homosexualak debekatzeko egin zena. Suitzan begiratuko bagenu, % 70 inguru eskuineko erabakiak hartzeko izan dira, adibidez, paperik ez duten etorkinei osasun-sistema publikora sarbidea debekatzeko.

Zergatik gertatzen da hori? Kontsultak erabiltzen direlako une parte hartzaile moduan eztabaidarik gabe eta kontsultetako kanpainak demagogiarako joko-zelai oso egokiak direlako. Horren kanpaina laburretan mezu populista zabaltzea oso erraza da. Beste gauza bat da kontsultak egitea aurretik egon denean urte bete edo bi urteko eztabaida-prozesu zabal bat.

Nire ustez kontsultek herri-ekimen bitartez izan beharko lukete ahal den neurrian. Hala ere, ez dut esaten hori denik modu bakarra. Botereak planteatzen dituenek arrisku plebisitariarioa dute eta aurretik dagoen gehiengo bat indartzeko izaten dira; askotan gutxiengoaren kontra joateko.

Herri-ekimenari zailtasunak jarri behar zaizkio, ez zaizkio gauzak oso erraz utzi behar. Ekimenak bideratzeko bideak errazak izango balira, arriskua dago, toki mailan bereziki, kontsultak gutxiengoaren kontra joatearena.

Halaber, giza eskubideen edo printzipio demokratikoen kontra doazen ekimenak ezin dira kontsultara eramane.

**Ezkerraberi- Nola ikusten duzu herritarren parte hartzea Euskal Herrian?**

**Asier Blas-** Oro har dauzkagun baliabideak oso eskasak dira. Horretan Espainia gara. Mimetizatu egin ditugu Espainiako mekanismo politikoak. Badakigu muga batzuk badaudela, konstituzioak jartzen dituenak. Horretaz aparte denetan mimetizatu ditugu, baita hauteskunde-sistema ere. Gurea Espainiaren kalkoa da. Herri-ekimen legegilean gauza bera egin dugu. Sinadura-kopuru adierazgarria bildu behar da eta iristen da Legebiltzarrera eta horrek egin dezake nahi duena. Praktikan ez da oso eraginkorra. Zertarako balio du? Balio du propaganda politikoa egiteko eta presionatzeko. Ez da gutxi!

Hemengo panorama oso txarra da, batez ere Espainari konpiatu diogulako. Badugu garaia pentsatzeko demokrazian sakondu dezakegula independente izan gabe.

**Ezkerraberi- Gure arteko kultura politikoaren adierazpen batzuetan batzarraren bidezko parte hartzea oso sustraituta dago. Sarri esan da batzarraren erabakia interes-talde jakin batzuen nahira tolesteko arrisku handia dagoela: Zer deritzozu?**

**Asier Blas-** Probokatzaileraren izate arren, esango nuke asanblearismoa ez zaidala gustatzen. Nola funtzionatzen duten batzarrak. Batzar batean bildu daitezke demagun 50 lagun. Zenbatek hitz egiten dute? Oso gutxi. Nork hitz egiten du? Hain zuzen ere, lidergo gaitasuna duenak. Jende asko etorriko da batzarrera buruan ideia mirengarriak dituen eta horiek bota gabe itzuliko da etxera batzarrean ahoa ez dutelako ireki. Gainera bozka batzarrean nahikoa modu plebisitariario eta populistan egiten da liderak esaten duenari jarraituz.

Ni ez naiz batzar zalea. Horrek ez du esan nahi batzarrak ez direla erabili behar baldin eta metodologikoki ongi antolatua badaude. Horrek lan handia eskatzen du batzarra antolatzen, arauak garbi jartzen eta aukera-berdintasuna sustatzen.

**Ezkerraberi- Bukatzeko zerbait erantsi nahiko zenioke orain arte esandakoari?**

**Asier Blas-** Demokrazia parte hartzailea egokitu behar zaio testuinguruari. Euskal Herrian gero eta hezkuntza-maila handiagoa daukagu eta prozesu parte hartzaileen adibide moduan hartu diren herri batzuen egoera sozio-ekonomikoa, Andaluziarena

Me gusta mucho el sistema que había en Letonia antes de cambiar la ley hace cuatro años. Para impulsar una iniciativa legislativa los promotores tenían que conseguir el 1% del censo electoral en firmas. Conseguido eso, entregaban las firmas al gobierno y este tenía que poner en marcha las infraestructuras necesarias para recoger hasta el 10% de las firmas; por ejemplo abriendo los colegios electorales para recogerlas. Si se recogía el 10% de las firmas era obligatorio realizar la consulta. La consulta para ser vinculante tenía que haber una participación del 50%. De esa manera se realizó un referéndum para disolver el parlamento. La participación no superó el 50%, pero el presidente disolvió el parlamento por que los partidarios de la disolución ganaron con amplitud.

Estatu Espainiarrean edo Hego Amerikena, ez da bera. Horiek hona bere horretan trasladatu nahi izan dira eta emaitzak ikustean frustrazioa sortu da.

Nik uste gurean saiatu beharko genuke errebokazioa sortzeko espazioak bilatzen, espazioak daukagun hauteskunde-sistema aldatzeko, espazioak ditugun alderdien funtzionatzeko erak aldatzeko. Irudipena daukat guren ordezkapen bidezko demokraziak potentzialitate handiak dituela: Mekanismo parte hartzaileak bideratuko nituzke gehiago parte hartzeko arazoak dituzten kolektiboengana ailegatzeko.

**Ezkerraberi- Benetan bukatzeko, gurea bezalako gizarte aurreratu batean bide digitalen zein paper joki dezakete parte hartzea bideratzeko?**

**Asier Blas-** Beldurra ematen dit. Alde batetik, potentzialitate handiak daukate, baina bestetik arrisku handiak ere bai. Seguruenik denok izan ditugu gure laneko e-mezuen trukaketan, mezuren bat non ikusten dugun tonua igo egiten dela asko eta gauzak muturrera eramane egiten direla, hain zuzen ere buruz buru ez garelako parte hartzen ari.

Bestetik neroni oso kezkatuta nago gutxiengoekin eta iruditzen zait demokrazia digitalak horien kontra egin dezakeela. Izan ere, erabaki bat har badaiteke klik soil baten bidez oso erraza da intsolidario izatea. Espero dezagun inoiz ez direla erabakiak hartuko demokrazia digitalaren bidez soil-soilik.



Inaki Irazabalbeitia

# Ahalduntze Legea, erabakitzeko eskubidea baino haratago

Azaroaren hasieran EHBilduk *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Herritarrek Ahalduntzeko Lege proposamena* aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean. Hedabideetan nahikoa hautsa harrotu zuen eta komunikabide gehienek EAEko herritarren erabakitzeko eskubidea egikaritzeko tresna zela azpimarratu zuten. Egia esan Ahalduntze Legearen proposamena zabalagoa da. Herritarrei tresnak eskaini nahi dizkie bizitza politikoan eta administrazioaren erabakietan parte hartzeko. Egiatan, demokrazian sakontzea eta herritarren parte hartzea indartzea da legearen atzen asmoa. Legearen Atarikoan esaten den legez:

‘Lege hau, euskal herritarrek askatasunez eta demokratikoki aritzeko bitartekoa besterik ez da. Alegia, euskal gizarteari garrantzi bereziko auzi politiko, sozial, ekonomiko eta bestelakoetan erabaki ahalmena aitortzeko bitartekoa.’

Artikulu honetan legearen aspektu adierazgarrienak esplikatuko ditugu.

Legeak 3 titulu ditu. Lehenengoan oinarritzko printzipioak aipatzen dira. Bigarrena herri-kontsultei lotzen zaie. Hirugarrenean herritarren parte hartzeko prozesuak zehazten dira.

Herri-kontsultak edo testuan esaten den moduan herri-galdeketa honela definitzen dira:

‘Herri-galdeketa da agintari eskudunek, lege honen xedatzen duenari jarraiki, kasu bakoitzean legearen arabera gaituriko pertsonen jarduera, erabaki edo politika publiko bati buruz botoen bidez iritzia emateko egiten dieten deialdia.’

Herri-galdeketa EAE mailakoak, lurralde historiko mailakoak edo toki-esparrukoak izan daitezke, batetik, eta, bestetik, orokorrak, boto-emaille guztiei dei egiten zaienean, edo pertsona-kolektibo jakin bati eginikoak.

Erakunde publikoek zein herritarrek susta ditzakete herri-galdeketa. Adibidez, EAE mailako galdeketa

honoko agenteek dei dezakete: Lehendakariak, Jaur-laritzak, Eusko Legebiltzarrak, Foru Aldundietako bi eta udalen % 20ak baldin eta 200.000 biztanle baino gehiago batzen badituzte horien artean. Herri-ekimenek ere susta ditzakete herri-kontsultak horretarako herritarren sinadurak bildu behar dituzte. Esaterako EAE mailako herri-galdeketa orokor bat egiteko 5.000 pertsonen sinadura balioztatuak beharko lirarteke.

Gauza jakina da ezin dela gauza guztiei buruz herri-galdeketa egin. Hain zuzen ere lege-proiektuaren 11, artikulua argi eta garbi jasotzen du ezin formulatu dela herri-galdeketa Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean aipatzen diren eskubideei edo libertateei buruz. Etsenplurako meskita bat irekitzeari buruz ezingo litzateke herri-kontsultarik egin, erlijio-askatasuna oinarritzko eskubidea delako.

Herri-galdeketa EAEEn errolatutako hamasei urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.

Alor honetan badu legeak proposamen berritzaileak, arloko galdeketa fakultatiboak egin ahal izatea. Zer dira galdeketa fakultatiboak? Helburua dutenak herritarren iritzia botoen bidez jasotzea Eusko Jaur-laritzak, Foru Diputazioak edo udalek hurrenez hurren onartu berri dituzten legeei, arauari eta ordenantzei buruz. Adibidez, herri batean herritarrek ados ez badaude, udalak kale-garbiketarik buruz onartu duen ordenantzarekin, herri-galdeketa deitzeko aukera izango dute legeak ezartzen dituen baldintzak bete-tzen badira.

Gorago aipatu dugunez, legeak herritarren parte-hartze prozesuak ere arautzen ditu. Prozesuak edozein proposamen, jarduera edo erabakiren aurrean deitu ahal izango dira. Herri-galdeketa kasuan bezala instituzioek zein herri-ekimenak sustatu ahal izango dituzte eta EAEEn errolatutako hamasei urtez gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute. Legeak zehatz-mehatz definitzen du prozesu horiek nola gauzatu behar diren.

## Legeak hainbat mota definitzen ditu:



### Inkesta.

Iritzia jakiteko teknika demoskopikoak erabiliko lirarteke



### Kontseilu aholkulariak.

Legeen edo bestelako prozeduren tramitazioan eta onarpenean herritarren iritzia jasotzeko guneak dira.



### Audientzia publikoak.

Jarduera publiko jakin baten aurrean pertsonen, entitateen eta erakundeen proposamenak aurkezteko eta eztabaidatzeko aukera ematea.



### Aurrekontu parte-hartzaileak.

Herritarrek erakunde publikoen aurrekontuen zati bat zuzenean kudeatzea, gutxienez % 5a ezartzen da proiektuan.



### Parte-hartze foroak.

Ekimen eta politika publikoen gaineko hausnarketa, azterketa, proposamen eta ebaluazio guneak dira.



### Auzolana.

Herri-ondareari egiten zaio doako lan-ekarpena.

Legeak, bestalde, ez die atea ixten bestelako parte-hartze mota batzuei.

Espero dezagun legeak Eusko Legebiltzarrean onartzeko prozeduran aurrera egitea eta egin dakizkiokeen aldaketak gabeziak konpontzeko izan daitezkeen. EAJk eta inguruko komunikabide batzuk hartu

duten jarrera ikusita ez dirudi tramitazio erraza izango denik eta barkua osorik portura iristeko itsaso barea izango duenik. Gero konstituzionalaren ‘arbastatzea’ etor liteke eta Kataluniako kasuan bezala kontsulta orokorrak egiteko aukera debekatuko balu ere, oso tresna sendoa geldituko litzateke EAEko herritarrek ahalduntzeko eta demokrazian sakontzeko.



Igor López de Muniain, aralarkide y legebiltzarkide de EHBildu

## Hacia una soberanía plena

La participación ciudadana es uno de los pilares fundamentales de la acción política. Mucho se habla de un tiempo a esta parte, de cómo desde las instituciones se debe acercar la acción política a la ciudadanía creando ámbitos de decisión y de participación para que el pueblo de su opinión... pero hasta ahí.

La participación es concebida como un paso intermedio, relativamente cansino, para que la ciudadanía a través de procesos controlados y meramente informativos se convierta en sujeto corresponsable de las decisiones del gobierno de turno. Nada nuevo, "todo para el pueblo pero sin el pueblo"; la lógica de ese despotismo ilustrado, cada vez menos ilustrado por otra parte, hace de la acción política una actividad cada vez menos valuada y útil, utilizando para ello la mercantilización de los asuntos y la paranoia por la mera y pura gestión.

### Parte hartzearen helburua gizartea ahal-duntzea izan beharko luke. Maiz ariketa propagandistikoak baino ez dira.

Recuerdo cuando realicé mi primer proyecto participativo en el barrio bilbaíno de Errekalde. Por aquel entonces los procesos participativos daban ya sus primeros pasos, había dinero público para ponerlos en marcha e incluso podríamos decir que estaba de moda entre los sectores "progres" de la política. Hacer algo participativo en el municipio daba "caché", otra cosa era el caso posterior que se hacía desde las instituciones de turno a las conclusiones emanadas de dicho trabajo..., pero como había dinero... no pasaba nada.

El tiempo ha pasado y hoy la realidad es más bien otra. Por un lado asistimos a una supuesta crisis de la democracia representativa en la que los fundamentos de la misma han sido según algunas personas puestos en entredicho; por otro lado, vemos como

los partidos del "sistema" han asumido el concepto de la participación como algo normal, lo han vaciado de contenido y lo han introducido dentro del "que-hacer" político y del marketing electoral; y por último, todos y aquí nos incluyo, desconocemos el objeto mismo que buscamos a través de la participación, creemos que hacemos participación pero en realidad la mayoría de las veces hacemos descargo de información o ratificaciones de las decisiones que se toman en otros ámbitos y eso... no es participación o por lo menos no es el modelo participativo al que deberíamos aspirar.

En todos los procesos participativos en los que he tenido la suerte de participar siempre han existido los mismos muros insalvables: la (falta de) voluntad política; la visión de túnel al segmentar la participación a temas muy concretos sin darles una visión general; la falta de medios económicos, personales y conceptuales y lo peor de todo, la falta de continuidad una vez finalizado dicho proceso.

Todos estos son los síntomas que aparecían, junto con algunos otros, al poner en marcha políticas participativas sin un objetivo político más que el puramente propagandístico. Y ese es el cáncer de la política actual, el cortoplacismo, hacer de la táctica la estrategia y seguir las modas y

temas que se imponen a través de los medios de comunicación sin entrar a debates profundos sobre cuáles son las prioridades sociales y las políticas de clase a implementar.

El objeto de la participación no debería ser otro que el de empoderar a la sociedad, hacer de una sociedad adoctrinada a través del consumo y de los medios de desinformación, una sociedad crítica y activa que cuestione el actual modelo de representación y de toma de decisiones. Para ello debe contar con toda la información, conocer los entresijos del entramado legal e institucional en el que los cocodrilos políticos han anidado y por supuesto y más importante, que lo que se decida a través de los procesos de empoderamiento sea vinculante por parte de los y las representantes políticos.

Aquí aparece otra contradicción entre el modelo representativo de la democracia liberal y lo que debería ser los ámbitos populares de decisión. Aquellas que defendamos la ruptura democrática, la emancipación popular, la justicia de clases y la transformación política a través de una de-

mocracia popular no podemos más que defender la puesta en marcha y consolidación de estos procesos populares. No podemos caer en el maniqueísmo de los poderes clásicos y hacer de la participación una cesión al pueblo, el poder debe estar en las bases y desde ahí crecer. No niego que no deba existir una representación política en las Instituciones pero debemos cuestionar si únicamente a través de las Instituciones seremos capaces de emancipar al pueblo trabajador vasco. Las Instituciones están tomadas por intereses ajenos a los legítimos intereses del pueblo, el poder corrupto y corruptor ha enajenado la democracia y la ha sustituido por un fasci-capitalismo con derecho a voto que no a veto y al cambio.

### Subirautza nazionala ez da deus herritarren subirautza ez badago.

Es momento de superar la actual política "progre" de 140 caracteres en el que se mueve la participación y ponerla al servicio de la transformación política, dotándola para ello de medios, contenidos y compromisos políticos, avanzando así hacia una democracia del pueblo, desde el pueblo y para el pueblo, en el que sin miedos se puedan defender los derechos legítimos de éste por encima de los derechos bastardos de los lobbys económicos y financieros, ese debe ser el objetivo final de la participación, ese debe ser el fin y el inicio de la misma, así volveremos a poder crear poder popular, así volveremos a soñar y a confiar en la posibilidad de cambio.

La soberanía nacional no es nada sin soberanía popular y viceversa, apostemos por ello por una soberanía plena desde el individuo empoderado hasta el Estado socialista, el poder popular es algo más que una consigna, el poder popular y su ejecución es una obligación y más en el momento histórico en el que nos encontramos, para todos y todas nosotras.



Iker Elizalde Hendaia zinegotzia da

## Ipar Euskal Herriko esperientzia bat

Hendaia Herriko Etxeak Agenda 21 izeneko desmarta bat abiatu du. Honen helburua da trantsizio energetikoa Hendaia guztien jokabide bihurtzea, gure lurraldea sustatzea eta babestea.

“Globalean Pentsatu, tokian Aritu”: Bost xede finkatu dira Hendaia hiri solidarioa bihurtu dadin. 5 xede horiek honakoak dira :

- 1** klima aldaketaren kontrako borroka  
Gure jokabideak aldatzea
- 2** Bioaniztasuna, ingurumena eta baliabideak zaintzea  
Gure bazterren (fauna eta flora) babestea emendatzea.
- 3** Kohesio soziala eta elkartasuna lurraldeen eta belaunaldien artean  
Hendaia hiri solidarioa : gure arrangura nagusia: adin guztietako herritarrek Hendaia guztiei zuzenduko dizkieten ekintza zehatzak.
- 4** Jendeen loratzea  
Bizi-kalitatea lana da lehenik baina ber denboran, lurraldearen garapen harmoniatua eta bizi ingurumenaren hobekuntza ezinbestekoak ditugu.
- 5** Garapen dinamika bat ekoizpen eta kontsumo arduratsuentzat

Kalitatezko produktu andana eskaintzen dizkiguten tokiko ekoizleak animatu behar ditugu, merkatuak edo AMAP bezalako hurbileko salmentak dinamizatu.

Gogoeta eta plantan eman beharreko ekintzak herritarrekin batera eramatea erabaki da. Horretarako, Herritarren Lantaldeak izendatu diren tailerrak sortu dira. Partaidetzazko desmarta horren bidez, garapen aukera berriak, politika berritzaileak, eta Hendaia Herriko Etxeak abian jarri behar dituen ekintzak zehazten ari dira. Helburua da gure lurraldea sustatzea (Hendaia bakoitzak

bertan loratzeko aukera izan dezan), babestea edo aberastea.

5 lan talde plantan eman dira. Bakoitza auzo ezberdin batean kokatua da. Lan talde bakoitza bere erritmo eta egutegi propioa du. Ekintzak proposatzeko eta plantan emateko autonomia ere. Lan talde horiek honakoak dira :

### 1. lan taldea: Kohesio soziala eta elkartasuna lurraldeen eta belaunaldien artean

Lehen Ekintza bat abiatu da, besteak beste, lan talde honek ukaniko gogoetaren ondorioz. Proiektu hori Auzolan : herritar kafeak izendatua izan da.

Proiektu horri, Recycl'arte elkarte lotu zaio, urririkako tokiak sortzea proposatzeko.

#### Helburua

Hendaia Herriak, solasaldi informal horien bidez, auzoek beren pasioak parteka ditzaten, elkar ezagutu dezaten, loturak sor ditzaten... eta, agian, elkarri eman diezaioketen zerbitzu edota laguntzak aipa ditzaten bultzatu nahi du. Finean auzoen artean elkar ezagutzea, elkartasuna eta lotura sozialak azkartzea da proiektu honen helburua.

### 2. lan taldea: Garapen dinamika ekoizteko eta kontsumitzeko modu arduratsuak erabiliz: Tokian ekoiztu/tokian kontsumitu

Lan talde honek proiektu ezberdinak abiatu ditu. Esanguratsuenak, baratze komunitario pilotu baten sortzea Orio auzoan, interesa agertu duten hamabost familiarekin. Proiektua garatzeko Bizilekuen inguruko gune berde bat hautatua izan da, Office 64 (HLM) erakundearen oniritziarekin.

### 3. lan taldea: Klima aldaketaren kontrako borroka: garraioak, ekonomiak eta energia ekoizpenak

Lan talde hau txirrindaz ibiltzeko bidegorri sare bat garatzeko gogoeta eramaten ari da.

### 4. lan taldea: Bizi kalitatea: gune publikoen garbitasuna, abiadura eta zarataren kontrako borroka

Lan talde honek, egoeraren eza-gutze fasean, Herriko Etxeko zerbitzuen laguntza jasoko du tresna erabilgarriak ukaiteko.

### 5. lan taldea: Baliabideen kudeaketa: ura, hondakinak (bereizketa/bilketa/berziklapena)

Lehenik, Herriko hondakinen bilketa eta bereizketa alorrean konzentratu, lan talde honek proposamen ezberdinak aurkeztu ditu:

-Hiri pilotu bihurtzea plastikoen bereizketan; Herriko Etxeak proiektua, hondakinen saila kudeatzen duen Bil Ta Garbi sindikatari aipatu dio.

-Konpostagailu kolektibo bat kokatzea boluntario agertu diren Lizardiko bizileku bateko erai-kinaren oinetan.

-Agenda 21 ekimena berpiztu Hondartzako eskolan, Herriko Etxeak abiatu Agenda 21arekin bat egiteko eta horren laguntza jasotzeko.

Lan talde hauen sorrerarekin batera, galdetegi bat antolatu da Hendaia guztiei irekia ahalik eta herritar gehienaren iritzia biltzeko asmoz. “Iraunkorki bizi gaitezen Hendaian” izendatu da galdetegi hori.

Egitasmo guzti horiek koordinatzeko, gogoen aitzinamendua koordinatzeko eta aurreikusten diren ekintzen egingarritasuna aztertzeke Gidaritza Batzorde bat plantan eman da.



Honako pertsona hauek dute osatzen gidaritza batzorde hori :

- hautetsiek
- Herritarren Lantaldeen ordezkariak
- elkarten ordezkariak
- udal zerbitzuen ordezkariak
- eta aditu batzuek, beharrez gero.



**Rebeka Ubera,**  
Secretaria General  
de Aralar

## Metas de la Ley de Empoderamiento

Igual que la paz, cualquier herramienta que venga a ayudar en la profundización democrática y a posibilitar el ejercicio de la capacidad de decisión de la ciudadanía en la vida política siempre llega tarde.

La propuesta tiene el objetivo de ubicar a las personas en el centro de la vida política y de la toma de decisiones, tanto en los temas que afectan a la ciudadanía en el día a día como para decidir sobre el futuro de nuestro pueblo. Resumiéndolo en una frase: planteamos que la voluntad popular sea el motor y el único límite de nuestra sociedad y entramado institucional.

El proyecto de ley registrado en el Parlamento Vasco es una herramienta para que la ciudadanía no tenga que limitar su ejercicio democrático a expresar su voluntad mediante la elección de sus representantes en las diferentes instituciones. En los mecanismos de participación que se proponen en la ley, la ciudadanía no es solamente un sujeto pasivo al cual las instituciones consultan, sino que es también un sujeto activo con capacidad de impulsar consultas y procesos participativos.

En consecuencia, la propuesta de Ley de Empoderamiento no tiene nada que ver con la que el lehendakari Ibarretxe presentó en su día, es decir con el Plan

Ibarretxe; cuyo objetivo era únicamente plantear dos cuestiones que tenían que ver con la pacificación y normalización política. Por esa razón, decidimos presentarla fuera del contexto de la ponencia de autogobierno, ya que el objetivo del proyecto de ley, va más allá de ejercer el derecho a decidir.

Entendemos perfectamente, que para empoderar a los ciudadanos una propuesta de ley no suficiente y que solamente con ella es complicado empoderarnos como ciudadanos. Cada uno de nosotros, desde nuestro propio ámbito, tendremos que ir aportando en cada paso ingredientes que puedan ayudar a revolucionar y evolucionar la sociedad y, al mismo tiempo, la comunidad política.

Tampoco nos podemos olvidar de la adaptación y apertura de las instituciones a la sociedad actual. Durante años nuestras instituciones, en la mayoría de los casos, han estado estancadas, cerradas y sin ninguna evolución para adaptarse a la realidad de la sociedad. Y es necesario ante la lejanía, falta de credibilidad, etc. una readecuación para que puedan trabajar de la mano con las personas; para que puedan dar soluciones con celeridad. Es por lo que pensamos, que una herramienta como la Ley de Empoderamiento puede ayudar a actualizar las relaciones entre las instituciones, y la ciudadanía.

Por todo ello hemos priorizado presentar dicha propuesta de ley fuera de la ponencia de autogobierno. Pero como no debería ser de otra manera, estamos abiertos a debatirla dónde haga falta, ya que creemos que el dónde no puede condicionar el debate; pero esperamos que el dónde tampoco sea excusa para no debatirla. Hemos apostado por situarnos a la altura de las democracias más avanzadas de Europa y por recorrer el camino siendo conscientes que tenemos mucho que mejorar, mucho recorrido por hacer...Pero tenemos muy claro que tenemos ilusión, esperanza y ganas de trabajar pero sobre todo y ante todo voluntad política para poder construir entre todas y todos una sociedad más justa, solidaria y libre.

